



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko maiatzaren 27a

78. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko legezko oinordetzaren gaineko araubidea eguneratzeari buruzkoa (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Lehiakortasunari laguntzeko neurri berrietarako kreditu berezia emateari buruzkoa (7. or.).
- Foru Lege proiektua, 2016ko aurrekontuan 1.378.683 euroko kreditu berezi bat onesten duena, Tuteran inbertsio behar presakoei erantzuteko (9. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ingelesez Ikasteko Programa ezarri, hezkuntza-eskaintza handitu, eta eraikin berri bat jaso dezan Cintruénigoko La Paz Institutuan. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Enpleguaren Kalitatearen aldeko Plan bat presta dezan eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren jarduketak gehitu ditzan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emanaldiak Interneten bidez eskaintzen dituzten munduko telebista guztiak ikusten lagundu eta aukera hori erraztu dezan, salbu eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren edozein artikuluri eraso egiten dion edukia daukatenak. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Doña Mayor de Navarra ikastetxe publikoko ikasleak Padre Moret BHIan matrikulatzea erraztu dezan, ikasle horiek bigarren irakaskuntza British programa elebidunaren barnean jasotze aldera. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aniztasunerako Arretaren Plan Estrategikora-ko proposamen bat aurkeztu eta hezkuntza komunitatearekin eztabaida dezan, eskola inklusibo baten esparruan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (16. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da erraztu dezan Doña Mayor de Navarra ikastetxe publikotik datozen ikasleen matrikulatzea Padre Moret-Irubide Institutuko British programan. Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztu du (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da lehentasuna eman diezaien Nafarroako Gobernuaren edo udalen titulartasuneko eraikin historiko, artistiko eta monumentaletan beharrezkoak diren inbertsioei. EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (19. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak desadostasunerako eta protesta bake-tsarako eskubidea aldarrikatzen baitu, gizarte demokratiko eta askotarikoa eraikitzeko funtsezko elementua den aldetik. Eledunen Batzarrak onetsia (20. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere kezka agertzen baitu Iruñean lau gaztek jasan dituzten sexu-erasoengatik, eta eraso horiek zeharo arbuiatzen baititu. Eledunen Batzarrak onetsia (20. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen baititu Turkian eskubide zibilek eta askatasun politikoei dituzten murriztapen iraunkorrak. Eledunen Batzarrak onetsia (21. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Meategien inguruko Mahaia edo Kontseilua eratzeari buruzkoa. David Anaut Peña jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, Nafarroako eremu ez-euskalduneko A eta G erduei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (23. or.).
- Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuan bideragarritasun ekonomikoko azterlan xehakaturik ez egoteari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (23. or.).
- Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuak toki ogasunean duen eraginari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (24. or.).
- Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuan saneamendu sarea justifikatu gabe egoteari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (25. or.).
- Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuari dagokionez lurzatieta esplorazioak neurri handiagoan mugatu beharri buruzkoa eta proiektu horretako espazio publiko urbanizatuak irisgarriak izateko eta lurzati horien irisgarritasunari eta erabilerari dagokienez bereizkeriarik ez izateko oinarritzko baldintzak betetzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (25. or.).
- Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuan Lurralde Antolamenduko 2. Planaren 58. artikulua betetzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (26. or.).
- Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuari buruzko txostenaren “1. alternatiba” izeneko aukerari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (27. or.).
- Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuari buruzko txostenaren “2. alternatiba” izeneko aukerari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (28. or.).
- Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuari buruzko txostenaren “4. alternatiba” izeneko aukerari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (29. or.).
- Galdera, Lekarozko Aroztegia udalez gairik plan sektoriala iraungitzea erabakitzeke aukerari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (30. or.).
- Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuari buruzko txostenaren konklusioetako 4. aukerari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (31. or.).
- Galdera, ANADI elkarteak eskatu duen diru-laguntza ukatzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (32. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak eta haren mendeko sozietateek Tafallako eskualdean alokatuta dituzten higieizinei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (33. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko mandatari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko, B2 pareko euskara mailarekin (34. or.).
- Nafarroako Parlamentuak izendatzekoak diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko hiru kideak hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (40. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko legezko oinordetzaren gaineko araubidea eguneratzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2016ko maiatzaren 18an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko legezko oinordetzaren gaineko araubidea eguneratzeari buruzko Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 152, 153 eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Osoko Bilkuraren esku jartzea, Erregelamenduko 152 eta 153. artikuluetan ezarritako berezitasunak kontuan hartuta, foru lege proiektu honen izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa: "Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko legezko oinordetzaren gaineko araubidea eguneratzeari buruzkoa".

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko legezko oinordetzaren gaineko araubidea eguneratzeari buruzkoa

AURKIBIDEA

Zioen azalpena.

Lehenengo artikulua. Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioaren 304. Legearen 7. idatz-zatia aldatzea.

Bigarren artikulua. Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 24. artikulua aldatzea.

Xedapen iragankor bakarra. Foru lege honek indarra hartzen duenean hasiak diren prozeduretan aplikatu beharreko arauak.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indarrrik gabe uzten diren xedapenak.

Lehenengoa. Foru lege hau gehiengo osokotzat hartzea.

Bigarrena. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematea.

Hirugarrena. Foru legeak indarra hartzea.

ZIOEN AZALPENA

Gaur egun, Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko legezko oinordetza ondoko hauetan dago arautua: martxoaren 1eko 1/1973 Legearen bidez onetsitako Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioaren 304. eta 307. legetan, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 24. artikuluan, eta haren erregelamenduzko xedapenetan, zehazki Foru Komunitatearen aldeko legezko oinordetzari aplikatu behar zaion administrazio araubideari buruzko uztailaren 1eko 166/1988 Foru Dekretuan.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 48.2 artikulua xedatzen duenez, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko indarreko Konpilazioaren edo Nafarroako Foru Berriaren aldaketa foru lege bidez eginen da. Lege organiko horren 45.6 artikulua ezarri zuen foru lege batek arautuko dituela Nafarroaren ondarea nahiz haren administrazioa, defentsa eta zainketa. 20.2 artikuluan xedatzen denez, berriz, lege organiko horretan berariaz aipatzen diren foru legeak onesteko, gehiengo osoaren aldeko botoa jaso beharko dute proiektu osoari buruzko azken bozketan; horrelako legeak dira, hain zuzen ere, foru lege honen bidez aldatu nahi diren bi xedapenak.

Foru lege honen arrazoia Borondatezko Jurisdikzioari buruzko uztailaren 2ko 15/2015 Legea berriki onetsi izana da, Administrazio Publikoaren Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen zenbait artikulua aldatu dituelako; horren xedea da Administrazioa abintestato jaraunse deklaratzeko prozedura, orain arte epaitegiei zegokiena, eremu administratibora eramatea, bai eta prozedura horien emaitza den jaraunspeneko ondasunen likidazioa eta xedea arautzen zituzten Kode Zibilarren aginduak ere.

Era berean, uztailaren 2ko 15/2015 Legeak eta urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Lurzoruaren eta Hiri Zaharberritzeari buruzko Legearen Testu Bateginaren laugarren xedapen gehigarriaren 3. atalak testu berria eman diote azaroaren 3ko 33/2003 Legearen azken xedapenetako bigarrenari, Konstituzioaren 149.1 artikuluan araugintzarako eskumenak banatzeko aurreikusitako sisteman onartu diren aldaketak gehitzeko. Horrenbestez, foru lege honek lege prozesalen arloan Estatuaren eskumen osokoak diren arauak errepikatzen ditu, eta foru lege zibilen gaineko eskumen autonomikoak garatzen dituzten arauak jasotzen ditu, bai eta Nafarroako bere foru araubidearen indarrez dituen eskumen osoez baliatzen diren arauak ere.

Adierazitakoarekin bat, foru lege honek Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko legezko oinordetzaren gaineko araubidea eguneratzen du, eta, horrela, abintestato jaraunsearen deklarazioak bide judizialek gauzatzen den prozedura izateari utzi, eta prozedura administratibo bihurtu da. Apirilaren 4ko 14/2007 Foru Lege indardunak antzeko aginduak jasotzen ditu beste kasu batzuetarako; horrekin bat, eta edukiari arau babes egokia emateko xedez, prozedurarako zenbait xedapen ematen ditu, besteak beste alderdi hauek arautzen dituztenak: ebazteko eskumena, publikitatearen baldintzak eta moduak, instrukzioan egin beharreko jarduketak, ebazteko gehieneko epea eta deklarazio administratibo horrek dituen edukia eta ondorioak ondasun eta eskubideen likidazioa egin arte.

Jaraunspeneko ondasunen likidazioak emandako zenbatekoari dagokionez, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioaren 304. legearen edukia aldatzen da, eta aurreikusten Nafarroako Foru Komunitateko Diruzaintzan sartuko dela, interes sozialeko helburuetarako aurrekontuko diru kopuruak handitzeko. Indarreko banaketa, hau da ongintzako, hezkuntzako, ekintza sozialeko edo lanbide erakundeen artean, Nafarroako Komunitatekoen eta udaletakoaren artean erdi bana egiten dena, eguneratu egiten du aldaketa honek, kontuan hartuta horrelako erakundeen jardun eremua gero eta handiagoa dela, kausatzaileen mugimenduak eta egoitza-aldaketak herri eta hiri batean baino gehiagotan bizitzan zehar, eta prozesu horietarako erabiltzen diren bitarteko teknikoak eta langileak egokitu behar direla banatzen ahal den zenbatekoarekin.

Horrez gain, arau aldaketa hori Foru Komunitateko zergadunek interes sozialeko beste xede batzuetarako bideratzen dituzten tributuen ehuneko 0,7aren esleipena arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legearen edukiarekin lotzeko, apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 24. artikuluari idatz-zati berri bat, 9.a, erantsi zaio, honakoa zehazteko: jaraunspen horien likidazioak eragindako zenbatekoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan xede hori hautatzen duten zergadunen kuota osoekin hornitzen den aurrekontuko kontusailari gehituko zaio.

Foru lege honek indarra hartu aurretik Nafarroako Foru Komunitatea abintestato jaraunse deklaratzeko hasitako prozedura judizialei dagokionez, xedapen iragankor bakarrak ezartzen du hasieraren datan aplikatzekoa den araudiaren menpe egonen direla. Likidatu eta banatzeko dauden jaraunspenei dagokionez, azkenik, haien tratamendua, xedea eta banaketa bateratzeko helbu-

ruarekin, foru lege honek eta haren erregelamenduzko xedapenek arautuko dituztela xedatzen da.

Lehenengo artikulua. Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioaren 304. Legearen 7. idatz-zatiaren aldaketa.

Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioaren 304. Legearen 7) idatz-zatiaren testua hauxe izanen da:

“7) Aurreko zenbakietan aipaturiko ahaiderik izan ezean, Nafarroako Foru Komunitatea izanen da oinordeko; horrek, jaraunspenaren ondasun eta eskubideen likidazioa egin ondoren, ateratzen den zenbatekoa Nafarroako Foru Komunitatearen Diruzaintzan sartuko du, interes sozialeko xedetarako erabiltzen den aurrekontuko kontu-saila handitzeko.”

Bigarren artikulua. Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 24. artikulua aldatzea.

Bat. 24. artikulua 5. idatz-zatia aldatzen da.

Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 24. artikuluko 5. idatz-zatiak testu hau izanen du:

“5. Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko legezko oinordetza foru lege honek, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren arauak eta aplikatzekoak diren arau osagarriek edo erregelamenduzkoek zuzenduko dute.

Nafarroako Foru Komunitateko abintestato jaraunsearen deklarazioa bide administratibotik eginen du ondarearen arloko eskumena duen departamentuak, behar bezala justifikatu ondoren oinordetza utzitako pertsonaren heriotza, testamenturik gabeko oinordetza irekitzea bidezkoa dela, eta beste jaraunse legitimorik ez dagoe la egiaztatuta.

Deklarazioaren espedientea hurrengo idatz-zatietan eta horiek garatzen dituzten erregelamenduzko arauetan aurreikusitakoari jarraikiz tramitatuko da.”

Bj. 24. artikuluar 6., 7., 8. eta 9. idatz-zatiak gehitzen zaizkio.

Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 24. artikuluko 6., 7., 8. eta 9. idatz-zatiak gehitzen dira, eta edukia hau da:

“6. Prozedurari ofizioz emanen zaio hasiera, organo eskudunak erabakita, berak bere ekimenez edo hauen ondorioz: goragoko agindu bat, beste organo batzuen eskaera arrazoitua edo salaketa, edo beste organo, entitate edo profesional batzuegandik jasotako jakinarazpenak.

Prozedura irekitzeko ebazpena Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean emanen da argitara, eta kausatzaileak azken helbidea izandako toki entitatera, hil zenekora eta ondasun gehienak zituenera igorriko da, bertako iragarki oholetan argitara dezaten, horrek galarazi gabe zabalkunderako beste bitarteko batzuk ere erabiltzeko aukera. Ediktuak hilabetez egon behar dira jendaurrean, eta epe horretan interesdun orok alegazioak aurkezten ahalko ditu, edo egokitzat jotzen dituen agiriak edo beste datu batzuk.

Espedientearen instrukzioak berarekin ekarriko du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren oinordetza eskubideak bidezkoak direla ezartzeko beharrezkoak diren egintza eta egiaztapen guztiak egitea, eta kausatzaileaz eta bere ondasun eta eskubideez lor daitezkeen datu guztiak ere barne hartuko ditu. Herritarren laguntza ere eskatzen ahalko da, foru lege honen 54. artikulua aipatutakoa.

Espedientean txosten juridiko bat ere egonen da, Nafarroako Foru Komunitatea abintestato jaraunse deklaratzeko egindako jarduketan egokitasunaz eta nahikotasunaz, bai eta deklarazioa arautzen duten xedapenen betetzeaz ere.

Espedientearen ebazpena eta, kasua bada, Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko abintestato jaraunsearen deklarazioa, departamentuan ondare arloko eskumenak dituen organoak emanen du, eta deklarazioan sartutako ondasun eta eskubideen zerrenda zehaztua ere jasoko du, erabilera edo gozamenerako balizko mugekin eta espedientean horiei buruz izan daitezkeen aipamen ororekin batera. Prozedura ebazteko gehieneko epea urtebetekoa izanen da, irekitzen den egunetik hasita.

Ematen den ebazpena espedienteari hasiera emateko erabakia argitara eman eta iragarri den toki berberetan argitaratuko da; jaraunspeneko ondasunen gaineko esku-hartez arduratzen ari diren organo judizialei haren berri emanen zaie eta jaraunspenerako eskubidea izan lezaketenei jakinarazi beharko zaie.

Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 20.bis artikuluko 8. idatz-zatiarekin bat, azken xedapenetan bigarreneko 1. atalari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitatea abintestato jaraunse deklaratzeko prozedura honetan ematen diren ekintza administratiboen kontrako errekurtsioa aurkezten ahalko da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, soilik lehiaren eta prozeduraren gaineko arauak hausteagatik, bide administratiboa amaitu ondoren betiere. Administrazioa abintestato

jaraunse deklaratzeko edo haren alde ondasunak adjudikatu izanak beren jaraunspenerako eskubidea edo beste eskubide zibil batzuk kaltetu dituela uste dutenak dagozkion ekintzez baliatzen ahalko dira organo jurisdikzional zibiletan, bide administratiboan erreklamazioa egin ondoren, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 61. artikuluan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen VIII. tituluaren ezarritako arauarekin bat.

7. Nafarroako Foru Komunitateari abintestato jaraunsearen izaera emateko deklarazio administratiboak berarekin dakar jaraunspena inbentario-emaitzaren arabera onartzea, kausatzailearen ondasun eta eskubideen jabetza hartzea ahalbidetzen du, eta, kasua bada, eskubidea ematen du aginte judizialari haren zaintzapean daudenak entrega ditzan eskatzeko.

1946ko otsailaren 8ko Dekretuaren bidez onetsitako Hipoteka Legearen 14., 16. artikuluekin eta haiekin lotutakoekin bat, deklarazio hori titulu nahikoa da Nafarroako Foru Komunitatearen alde Jabetzaren Erregistroan inskribatzeko kausatzaileak bere izenean zituen higiezin edo eskubide errealak. Higiezin edo eskubide errealak lehenagotik inskribatu gabe baldin bazeuden, deklarazioa titulu nahikoa izanen da immatrikulazioa egiteko.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren erantzukizuna, prozedura hauen xede diren ondasun eta eskubideen titulartasuna dela eta, organo judizialak entregatzen dituenean edo haien jabetza egiazkoa hartzen duenean, une horretan hasiko da.

8. Jaraunsiaren egiazko jabetza hartu ondoren, ondare arloko eskumena duen departamentuak haren ondasun eta eskubideen likidazioa egiten du, ordaindutako gastuak eta kalte-ordainak kenduta, baldin badaude. Likidazio hori egiteko prozedura erregelamenduz ezarriko da.

9. Nafarroako Foru Komunitateko Diruzaintzan likidazioaren zenbatekoa sartu ondoren, interes sozialeko beste xede batzuetarako aurrekontuetan dagoen kopuruari gehituko zaio, hain zuzen ere Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergan xede

hori hautatu duten zergadunen kuota osoen batuarekin hornitzen den horri.

Xedapen iragankor bakarra. Foru lege honek indarra hartzen duenean hasiak diren prozeduretan aplikatu beharreko arauak.

Borondatezko Jurisdikzioari buruzko uztailaren 2ko 15/2015 Legearen bigarren xedapen iragankorraren 1. idatz-zatiarekin bat, Nafarroako Foru Komunitatea abintestato jaraunse deklaratzeko prozedura judizialak, foru lege honek indarra hartu aurretik hasita zeudenak, hasi aurretik aplikatzekoa zen araudiak zuzenduko ditu. Nolanahi ere, foru lege honek indarra hartzen duenean likidatzeko zeuden jaraunsiak eta likidazio horien emaitza diren kopuruaren banaketa foru lege honek eta haren erregelamenduzko xedapenek zuzenduko dituzte.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indarrrik gabe uzten diren xedapenak.

1. Indarrrik gabe gelditzen dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

2. Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko legezko oinordetzari aplikatu behar zaion administrazio araubideari buruzko uztailaren 1eko 166/1988 Foru Dekretuak indarrean segituko du foru lege honen kontrakoa ez den guztian.

Azken xedapenetan lehena. Foru lege hau gehiengo osokotzat hartzea.

Foru lege honek gehiengo osoa behar du onetsia izateko, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2, 45.6 eta 48.2 artikuluen arabera.

Azken xedapenetan bigarrena. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematea.

Nafarroako Gobernuak behar diren erregelamenduzko xedapenak eman ditzake foru lege hau garatu eta betearazteko.

Azken xedapenetan hirugarrena. Foru legeak indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Foru Lege proiektua, Lehiakortasunari laguntzeko neurri berrietarako kreditu berezia emateari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2016ko maiatzaren 18an hartutako erabakiaren bidez, Lehiakortasunari laguntzeko neurri berrietarako kreditu berezia emateari buruzko Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Osoko Bilkuraren esku jartzea foru lege proiektu honen izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia: "Foru Lege proiektua, Lehiakortasunari laguntzeko neurri berrietarako kreditu berezia emateari buruzkoa"

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proiektua, Lehiakortasunari laguntzeko neurri berrietarako kreditu berezia emateari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Gaur egungo egoeran, Nafarroako ekoizpen sektorearen lehiakortasunari laguntzeko neurrien esparrua handitzeko premia dago. Horretarako, beharrezkoa da, besteak beste, enpresa kudeaketaren arloan bikaintasuna sustatzeari bultzada ematea, gazteei beraien enpresak sortzen eta zabaltzen errazteko ekintzetan laguntzea, eta norberaren bizitza, lana eta familia bateratzearen alde egitea.

Kudeaketaren bikaintasunari dagokionez, ez dugu ahantzi behar azken hamarkadetan Nafarroako enpresek ahalegin handia egin dutela bikaintasuna lortzeko bidean, zenbait kontzeptu jorratuz:

enpresaren gizarte erantzukizuna, erabateko kalitatea edo berrikuntza. Nolanahi ere, aurrerakuntzak gero eta azkarragoak eta lehia eta globalizazioa gero eta handiagoak direnez, beharrezkoa da lehiakortasuna hobetzen segitzea enpresen bikaintasunaren bidez. Hori dela eta, kudeaketa hobetu beharra dago, enpresen produktuak edo zerbitzuak kalitatezkoak izatea ez ezik beste arlo batzuen kudeaketan ere aurrerapausoak egiteko, esate baterako, pertsonen, berrikuntzaren edo talentuaren kudeaketaren arloan. Gogoeta horren ondorioz, egoki ikusten da "Kudeaketa aurreratua- ren eredia" izeneko zabaltzea, hura hedatuz eta prestakuntza emanez, ebaluazioa eginez enpresetan eta ezartzen lagunduz. Era berean, kudeaketarako bikaintasunaren ereduak txertatzeak dakartzan onurak ezagutzera emateko xedeaz, Nafarroako Bikaintasunaren Saria sustatzen da. Horretarako Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioaren laguntza dugu.

Bestetik, ekintzailetzaren errealitateak gero eta toki zabalagoa du gazteen artean, batez ere haietako asko eta asko langabezia daudelako. BAiren datuen arabera, 2015eko laugarren hiruhilekoan 25 urtez beherakoan artean langabeek %46,5 egiten dute, gehiago dira gizonak (%51,7) emakumezkoak baino (%40,6); hori dela eta, ekintzailetzaren aukera oso erreala da besteren konturako lanarekin alderatuta. Beraz, Nafarroako gazteen- gan duen eragina aintzat hartuta, egokia da Nafarroako Enpresaburu Gazteen Elkarteak ekintzailetzarekin lotuta bultzatzen dituen ekintzei laguntzea.

Beste alde batetik, norberaren bizitza, lana eta familia bateratzea garrantzi handiko elementua da, enpresen lehiakortasuna, prozesuen kalitatea eta lan giroa hobetzen laguntzen baitu, batetik, eta, bestetik, langileen ongizate pertsonala, familiakoa, profesionala eta soziala hobetzeko bidea ematen duelako, haien motibazioa eta enpresaren helburuekiko konpromisoa ere handitzen dituen heinean. Nafarroako Emakume Enpresari eta Zuzendarien Elkarteak sustatzen duen "Reconcilia" programa gakoa da neurri horren alde egiteko.

Helburu horiek erdiesteko modurik eraginkorrena, Nafarroan dagoeneko eraturik dauden entitate batzuei laguntzea da: aspaldian eremu horietan puntako jarduera betetzen dute, ordezkartza zabala dute eta beste pertsona batzuk sartzeko irekita daude. Entitate horiek hauek dira: Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa, Nafarroako

Enpresaburu Gazteen Elkartea eta Nafarroako Emakume Enpresari eta Zuzendarien Elkartea.

Neurri horiek ezartzeko, ordea, beharrezkoa da aurrekontuko diru-izendapenak egitea 2016ko ekitaldirako Garapen Ekonomikorako Departamentuan. Horrenbestez, kreditu berezi bat eman beharra dago, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 13/2007 Foru Legeko 48. artikuluan ezarritakoarekin bat. Kreditu hori departamentu horren beraren beste kreditu batzuk erabiliz finantzatu da, 2016an osorik edo zati batean beharko ez direnak hain zuzen. Plan Estrategikoak egiteko gastuen kontu-sailaren kasuan, lan horiek Administrazioaren baliabide berekiekin betetzen ari direlako. Eskualdeetako Plan Estrategikoen esparruko inbertsio proiektuetarako kapital transferentzien kontu-sailaren kasuan, berriz, 2016an ez dagoelako aurreikusirik kapital transferentziak beharko dituen inolako inbertsiorik egitea.

Era berean, foru lege honek, kontu-sail izendurak sortuz, eragile horiei laguntzak zuzenean emateko gaitzen du, Diru-laguntzei buruzko azararen 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.a) artikuluan xedatutakoarekin bat.

1. artikulua. Kreditu berezi bat ematea.

220.000 euroko kreditua ematen da, ekitaldian Garapen Ekonomikorako Departamentuaren beharrei erantzuteko 2016an.

Kreditu hori aurrekontuko kontu-sail hauetan aplikatuko da:

Kontu-saila	Zenbatekoa
810009 81310 4819 422204, Nafarroako Bikaintasunerako Fundaziorako transferentzia, kudeaketaren arloko bikaintasun ekintzetarako.	100.000 €
810009 81310 4819 422205, Nafarroako Enpresaburu Gazteen Elkarterako transferentzia, ekintzailatza ekintzetarako.	60.000 €
810012 81500 4819 494116, Nafarroako Emakume Enpresari eta Zuzendarien Elkarterako transferentziak, Reconcilia programaren kudeaketarako.	60.000 €
GUZTIRA	220.000 €

2. artikulua. Kreditu bereziaren finantzaketa.

Kreditu berezi hau aurrekontuko kontu-sail hauen kargura finantzatu da:

Kontu-saila	Zenbatekoa
810009 81310 2276 422203 Plan estrategikoak	20.000 €
810009 81310 7609 422200 Eskualdeetako plan estrategikoak	200.000 €

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, 2016ko aurrekontuan 1.378.683 euroko kreditu berezi bat onesten duena, Tuteran inbertsio behar presakoei erantzuteko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2016ko maiatzaren 18an hartutako erabakiaren bidez, foru lege proiektu bat igorri dio Nafarroako Parlamentuari, 2016ko aurrekontuan 1.378.683 euroko kreditu berezi bat onesten duena, Tuteran inbertsio behar presakoei erantzuteko.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bazarri entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Osoko Bilkuraren esku jartzea ondoko foru lege proiektuaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia: "Foru Lege proiektua, 2016ko aurrekontuan 1.378.683 euroko kreditu berezi bat onesten duena, Tuteran inbertsio behar presakoei erantzuteko.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proiektua, 2016ko aurrekontuan 1.378.683 euroko kreditu berezi bat onesten duena, Tuteran inbertsio behar presakoei erantzuteko

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Gobernuko Herri Lan Zuzendaritza Nagusiak Tuterako Institututik A-68 autobiarantz sartzeko bidea itxi du bide segurtasunarekin lotutako arrazoiengatik. Erabakiaren oinarria autobiarantz sartzeko bideak izan beharreko baldintzen gaineko araudia da. Horrela, A-68 autobiarantz Tuteran egiten duen zatian arriskua izan dezaketen puntuetako bat kendu da. Baina itxiera horren ondorioz, eskolako autobus gehiago ibiltzen dira orain Tuterako hirigunean barna, eta horrek gehiegizko trafikoa eta

auto-pilaketak sortzen ditu hiriaren erdigunean eguneko zenbait ordutan.

Tuterako Udalak proposatu eta Herri Lan Zuzendaritza Nagusiak onartutako konponbidea hau da: Camino del Rape izeneko egokitzea ibilgailuen erabilerarako, eta, horrela, Huertas Mayores aldea Tarazonako errepidearekin lotzea. Proposamen horren helburua da hiriko erdigunean eskolako trafikoa ez pilatzea, eta aukera ematen du A-68 autobiarantz azkar bideratzeko Huertas Mayores etorbidearen eta Tarazonako errepidearen arteko loturari esker.

Lan hori egitea premiazkoa denez eta gerora sortutakoa, eta haren kostua ere handia denez, ez baitu orain jasoko Nafarroako Gobernuaren inolako diru-laguntzarik, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak proposatu du kontu-sail bat gaitzea 2016ko aurrekontuetako Toki Azpiegituren Planaren funtsaren kargura, Tuterako Udalari lanaren kostuaren %85eko diru-laguntza emateko.

Funts xedapen hori onetsi ondoren, bi erakundeek hitzarmen bat izenpetuko dute, diru-laguntza jasotzeko baldintzak ezartzeko; horietako bat Tuterako Udalaren konpromisoa izanen da, gehienez ere ekarpen ekonomikoaren zenbateko berdina edo handiagoa duten lanak Toki Inbertsioen Planaren sartzeari uko eginez.

1. artikulua. Kreditu berezi bat ematea.

1. Kreditu berezi bat ematea onesten da, gehienez ere 1.378.683 euroko zenbatekoa izanen duena, Tuterako Camino del Rape izeneko egokitu, Huertas Mayores aldea Tarazonako errepidearekin lotzeko finantzaketa beharrei erantzuteko 2016an, lanaren kostuaren %85 finantzatuz. Finantzaketaren gainerako zatia Tuterako Udalak hartuko du bere gain.

2. Kreditu horren zenbatekoa 2016ko gastuen aurrekontuko kontu-sail honi aplikatuko zaio: 780001-78300-7609-261600, "Camino del Rape egokitzea: Benjamín de Tudela BHLren sarbideak".

2. artikulua. Finantzaketa.

Kreditu berezi horren finantzaketa 2016ko aurrekontuan Toki Inbertsioen Planerako ezarritako kontu-sailetan gaitutako hasierako kredituak murriztuz egiten da, gehienez ere 1.378.683 euroko zenbatekoarekin, "Hornidura eta saneamenduko toki sareak" izeneko 781000-78310-7600-456100 kontu-sailaren kargura, hitzarmen bat izenpetu ondoren, Tuterako Udalak gehieneko

ekarpen ekonomikoaren zenbateko berdina edo handiagoa duten lanak planean sartzeari uko egitekoa, eta toki ogasunek Nafarroako tributuetan duten partaidetza funtsaren zenbateko osoan - kapital transferentziei dagokienez- aldaketarik eragin gabe.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ingelesez Ikasteko Programa ezarri, hezkuntza-eskaintza handitu, eta eraikin berri bat jaso dezan Cintruenigoko La Paz Institutuan.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Ingelesez Ikasteko Programa ezarri, hezkuntza-eskaintza handitu, eta eraikin berri bat jaso dezan Cintruenigoko La Paz Institutuan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkeztu du, dagokion Batzordean eztabaidatzeko eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ingelesez Ikasteko Programa ezarri, hezkuntza-eskaintza handitu, eta eraikin berri bat eraiki dezan Cintruenigoko La Paz institutuan.

Joan den maiatzaren 10ean Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak Cintruenigoko La Paz Bigarren Hezkuntzako institutua bisitatu zuen, haren instalazioak, hezkuntza-eredua eta egungo beharrianak ezagutzeko asmoz.

La Paz BHla 1998an eraiki zen, eta 2007an handitu zen. Gaur egun 285 ikasle (% 40 etorki-

nak dira) eta 36 irakasle ditu. Institutua hartzen duen herriak, Cintruenigok, alegia, biztanle-bilakaera nabarmena izan du ikastetxea eraiki zenetik; izan ere, ozta-ozta hogei urtekoa den epe batean 5.500 biztanle izatetik gaur egun ia 8.000 izatera pasatu da.

Institutuaren hezkuntza-proiektuak A eredia (euskara hautazko irakasgaia da) dauka, eta frantsesa du atzerriko bigarren hizkuntza. Horrez gain, Nafarroako Urruneko Hizkuntza Eskola Ofizialaren (NUHEO) programa eskaintzen du, eta horretarako, berariazko taldeak antolatzen ditu 3. eta 4. mailetan, frantsesaren eta ingelesaren ziurtagiriak lortzea errazteko asmoz.

Ikastetxeko zuzendaritzak eta guraso-elkarteak institutuaren egoera dela-eta dituzten beharrianak eta kezkek jakinarazi zituzten bisitan, eta herriko alkateak horiek berretsi egin zituen. Hain zuzen ere, Cintruenigoko La Paz BHlaren arazo nagusiak zerikusia du gaur egun daukan egitura-ekin, horrek eragozten baitio hurrengo ikasturteetarako jasoko duen eskariari erantzutea.

Ikastetxeak atal elebiduna gehitu zuen bere hezkuntza-proiektura, zeinak ingelesezko irakasgai bat zeukan mailako. Dena den, hizkuntza-eskakizuna daukaten bi irakasle baino ez du atal horretarako, eta, 2017-2018 ikasturteari begira, ikastetxeak Ingelesez Ikasteko Programaren lehenengo promozioa jasoko du, baina gaur egungo egiturarekin ezin izanen du hori hartu.

Cintruenigoko egungo hezkuntza-eskaintzak ez die erantzuten herriaren beharriari. Izan ere, ia 8.000 biztanle izanda, Nafarroan biztanle gehien dituzten hamabost udalerrietako bat da. Hori dela eta, ikastetxe berria eraiki edo egungoa handitu behar da, dagoen eskariari erantzutea ahalbidetuko bada eta ikasle askok ikasten jarrai-

tzeko beste herri batzuetara joan behar izatea ekin.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Ingelesez Ikasteko Programa ezar dezan Cintruenigoko Bigarren Hezkuntzako La Paz institutuan, dagoeneko programa hori ezarrita duen Otero de Navascués ikastetxe publikotik datozen

ikasleek programa horretan egoten jarraitu ahal izateko.

2. Institutu berria eraiki edo Cintruenigoko La Paz institutuaren egungo eraikina handitu dezan.

3. Cintruenigoko La Paz BHIaren hezkuntza-eskaintza handitu dezan.

Iruñean, 2016eko maiatzaren 13an.

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Enpleguaren Kalitatearen aldeko Plan bat presta dezan eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren jarduketak gehitu ditzan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Enpleguaren Kalitatearen aldeko Plan bat presta dezan eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren jarduketak gehitu ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Enpleguaren Kalitatearen aldeko Plan bat presta dezan eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren jarduketak gehitu ditzan.

Enpleguaren kalitatea hobetzea Nafarroako Alderdi Sozialistaren lehentasun bat da, gizarte bidezkoago, oparago eta berdinzaleago bat eraikitzeko egitasmoaren barruan.

Lan-merkatuko baldintzen narriadurak berekin dakartza behin-behinekotasun tasa handitzea, enplegu ezegonkorragoa, nahi gabeko lanaldi partzialeko kontratu gehiago, aitortu gabeko lan-modu berriak ugaritzea, soldata txikiagoak eta laneko ezbehar-tasa handitzea.

Horregatik, beharrezkoa da lan-merkatuan baldintza-berdintasuna desitxuratzen duten faktore horien guztien aurkako berariazko jarduketak abiaraztea, ekarpen erabakigarria egingen dutenak kalitatean eta ez kostu-murrizketan oinarrituriko enplegu lehiakorra finkatzeko.

Gainera, bai lan-harremanen eredu horrek bai aitortu gabeko enpleguak kalte egiten diote Nafarroako zerga-bilketari eta Gizarte Segurantzarako diru-bilketari, eta milaka langile uzten dituzte sistematik kanpo, zeinek, beraz, ez baitaukate lege babesik, ezta gizarte segurantzako eskubiderik ere. Gizarte Segurantzaren alta ez hartzea, legez kontrako aparteko orduak ugaritzea, lanaldi luzeegiak eta, batez ere, lanaldi partzialeko kontratuak masiboki eta iruzurrez erabiltzea benetako lan-esplotazioa dira, langileei zein sistemari berari kalte egiten diena.

Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzak bermatu behar du Alderdi Sozialistak kalitateko enpleguaren eta lan-harremanen esparru berriaren (adibidez, Langileen Estatutu berria) alde egiten duen apustua. Alde horretatik, lanera-

ko eskubidea bermatzeko eta, aldi berean, askatasun ekonomikoei eta merkatu-ekonomiari eusteko, enpresen arteko "lehia desleiala" zaindu beharko da, Laneko Ikuskatzailetzaren bidez "dumping soziala" ekidinez.

Nafarroako azken Enplegu Plan horretan dagoeneko erabaki bat hartu eta sinatu zen Nafarroan ezkutuko ekonomiaren eta aitortu gabeko enpleguaren aurka borrokatzeko, gaitz hori desagerrarazteko helburua daukana. Eta, horren harira, Borrokarako Jarduketa Plan bat onetsi eta aplikatu zen. Helburua jarduketa programa orokor bat ezartzea izan zen, egoera irregularrak kontrolatzearen eta, hala denean, zehatzearen ikuspuntutik ez ezik, egoera horiek prebenitzeko ikuspuntutik ere, halako moduan non, gizartea eta haren kide guztiak sentibilizatuta, jokabide horiek guztiak arbuatuko ziren.

Laneko Ikuskatzailetzak arreta jarri behar du funtsezko lehentasun batean: Zuzenbideko Estatua errealitate bihurtaraztea lantokietan, lan prekarietateari aurre eginda.

Horregatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du Enpleguaren Kalitatearen aldeko Plan bat presta dezan gure Komunitateko eragile ekonomiko eta sozialekin lankidetzan, Nafarroan agintekeriak, ezkutuko ekonomia eta aitortu gabeko enplegu uxatuko dituen.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du kanpainak egin ditzan, Nafarroako gizarte osoa sentibilizatze aldera aitortu gabeko enpleguaren ondorio negatiboekin eta horretara joz gero aplikatu daitezkeen zehapenekin.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du honako hauei lotutako datu guztiak argitara ditzan: gure Komunitatean dagoen ezkutuko ekonomia, eta ekonomia mota horren eragina kolektiboen, sektoreen edo jardueren arabera, baita eremu geografikoen arabera ere; problematika horrek bereziki zer esparru ukitzen dituen bereziki nabarmenduko da.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuaren premiatzen du Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren jarduketak nabarmen gehitu ditzan Nafarroako Foru Komunitatean, lanaren eta Gizarte Segurantzaren esparruko araudi osoa betetzen dela kontrolatzeko, eta, halaber, horretarako behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak ugaritu ditzan.

5. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuaren premiatzen du lanaren eta Gizarte Segurantzaren araudiaren esparruan arau-hauste oso larriengatik ezarritako zehapen irmoen berri eman dezan, dagoen berriazko araudiak ezartzen duen moduan, ahal den neurrian etorkizuneko arau-hausteei horrelakoetarako asmoa kentzeko.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 18an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emanaldiak Interneten bidez eskaintzen dituzten munduko telebista guztiak ikusten lagundu eta aukera hori erraztu dezan, salbu eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren edozein artikuluri eraso egiten dion edukia daukatenak.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita emanaldiak Interneten bidez eskaintzen dituzten munduko telebista guztiak ikusten lagundu eta aukera hori erraztu dezan, salbu eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren edozein artikuluri eraso egiten dion edukia daukatenak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

2010eko martxoan, hau da, Europar Batasunak ezartzen zuen epea baino bi urte lehenago, Espainiak egintzat jo zuen 'itzalaldi analogikoa', telebista-seinalearen emanaldiari dagokionez, eta lurreko telebista digitala ezarri zuen. Ordurako gaitz erdi hori zaharkituta zegoen, baina balio izan zuen aurrera egiteko eta Espainiako –eta, beraz, Nafarroako ere– biztanle gehienei telebista ikusi ahal izatea bermatzeko.

Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorrek jadanik ohar-tarazia du herritarra babestu behar dela nagusitasunezko iritzi-posizioetatik edo interes edo balio handiko eduki unibertsalak eskuratzeko ahalaren murriztaile diren posizioetatik. Alabaina, ez du argi eta garbi aipatzen Internet bidezko emanaldia,

zeina orokor bihurtu baita, eta Nafarroako Foru Komunitateko ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuei buruzko urtarrilaren 25eko 5/2012 Foru Dekretuak ere ez du halakorik aipatzen, bi hitzaurreetan esaten den arren bat-batean Internet agertu dela erabiltzaileei zerbitzu horiek eskuratzeko bide bezala, eta halaber biztanleak animatzen dituzten arren 'garapen teknologiko berrietara egokitzea.'

Eurostaten arabera, 2015ean Espainiako etxeen % 79k Internetarako konexioa zuten –Europako batez bestekoa % 83 da–, kopurua 2006tik bikoiztuta. Telefónica Fundazioaren datuen arabera, Nafarroan, 2015ean, etxeen % 79,6k bazeukaten banda zabaleko Internet, eta, beraz, telebista Interneten bidez ikusteko aukera ere bai.

Telebista ikusteko modua izugarri aldatzen ari da teknologikoki aurreratuen dauden kulturetan. Gure umeak ez dira prozesu horretaz ohartuko, ikus-entzunezkoen eskatu ahaleko kontsumoa baino ez baitute ezagutu; izan ere, hori da Interneten hedatu den formula, eta telebista-enpresa tradizionalenak ere horretara egokitzen doaz pixkanaka-pixkanaka. Enpresa horiexek zuzenean Sarearen bidez globalki ari dira beren eduki tradizional orokorra emititzen. Horrek esan nahi du une honetan zuzenean milaka telebista-kate ikus daitezkeela munduko edozein puntutatik; munduko herrialde guztietako programak ikus daitezke, herrialde horietan mintzatzen diren hizkuntza guztietan. Era berean, 'nahieran' deritzen edukiak ere eskuratu daitezke, eta horrek 'bideoklub' erraldoi bat hezurramitzen du, jakintzaz, kulturaz eta hizkuntza-aberastasunez beterikoa.

Beraz, denbora kontua da –eta hemendik gutxira gertatuko da– orain 'esparru erradioelektrikoa' deitzen dugunak, kateak hartzeko mugak dituenak, hemengo aldia egitea. Ondoren, telebista Interneten bidez baino ez da kontsumituko, euskarri digitala zein den ere, programak zuzenean edo grabatuta ikusteko aukera emanda ordenagailuaren, sakelako telefonoaren edo tabletaren bidez edo egungo telebista-gailuak egokituta.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Munduko telebista guztiak, Interneten bidez zuzenean emititzen dutenak eta beren eduki guztiak 'nahieran' sistemaren bidez edonoren esku jartzen dituztenak, ikusten lagundu eta aukera hori erraztu dezan, haien jatorria edo hizkuntza kontuan hartu gabe, salbu eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren edozein artikuluri eraso egiten dion edukia daukatenak.

2. Nafarroako biztanleen artean didaktikoki zabaldu ditzan ikus-entzunezkoen kontsumorako modu berriek eskaintzen dituzten kulturantzatasun-eta eleaniztasun-aukerak, hori egiteko modua jakit

narazita, gure Foru Komunitatean LTDa ezarri zenean egin zuen bezala.

3. Banda zabalaren hedapena susta dezan, Nafarroako biztanleen % 100enganaino heltzeko eta, horrela, munduko ikus-entzunezko edukiak guztiak eskuratzea ahalbidetzeko.

4. Nafarroako Gobernuaren webgunean eta haren euskarri digital guztietan espazio berezi bat sor dezan, non formatuaren berri emanen baita, eta zuzenean edo grabatuta ikusgai dauden programetarako estekak herrialde, eskualde eta hizkuntzen arabera ordenatuta agertuko baitira.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 18an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Doña Mayor de Navarra ikastetxe publikoko ikasleak Padre Moret BHIan matrikulatzea erraztu dezan, ikasle horiek bigarren irakaskuntza British programa elebidunaren barnean jasotze aldera.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Doña Mayor de Navarra ikastetxe publikoko ikasleak Padre Moret BHIan matrikulatzea erraztu dezan, ikasle horiek bigarren irakaskuntza British programa elebidunaren barnean jasotze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamen-

duan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkeztu du, dagokion Batzordean eztabaidatzeko eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Doña Mayor de Navarra ikastetxe publikoko ikasleak Padre Moret BHIan matrikulatzea erraztu dezan, ikasle horiek bigarren irakaskuntza British programa elebidunaren barnean jasotze aldera, edo haien gurasoek hautatu zuten ingelesa-gaztelania irakaskuntza elebiduna ikastetxe publiko batean jasotzen segitzeko aukera eman diezaien.

Gurasoek seme-alaben ikastetxea hautatzeko duten askatasunak araua izan behar du, eta Nafarroako hezkuntza-sistemaren asmoak horri erantzutea eta hori bermatzea izan behar du.

Joan den urtarrilaren 20an, Doña Mayor de Navarra ikastetxe publikoaren ordezkari bat idazki bat helarazi zion Nafarroako Arartekoari. Horren bidez, kexa bat aurkeztu zuten Hezkuntza Departamentuaren aurka, eta horri eskatzen zioten beren "seme-alabak Padre Moret BHIan matrikulatzea ahalbidetu dezan, ikasle horiek bigarren irakaskuntza British programaren barnean jasotze aldera".

Ukitutako ikasleek gurasoen ordezkariak beren txostenean salatu duten bezala, "Hezkuntza

Departamentuaren jokabide horrek urratu egiten du gurasoek seme-alabentzako ikastetxea hautatzeko daukaten eskubidea; are gehiago, kontuan hartuta Padre Moret BHIko zuzendaritzak adierazi duela haien seme-alabak hartzearekin ados dagoela eta hori egiteko prest dagoela, orain arte izan duten ingeles mailaren antzekoa daukan irakaskuntza bat jasotzen jarraitu ahal izan dezaten.”

Egoera hori izanda, ukitutako gurasoek kexa bat bidali zioten Nafarroako Arartekoari, aurretik aipatu diren zirkunstantzien berri emateko. Erakunde hori harremanetan jarri zen Hezkuntza Departamentuarekin, gaiari buruzko informazioa eskatze aldera. Kasua aztertu eta baloratu ondoren, Arartekoak idazki bat bidali zuen, Q16/28 espedienteari buruzko ebazpena biltzen zuena. Bertan ondoko hau erabaki zuen: “Hezkuntza Departamentuari gomendatzen diot kexa-egileen eskaera onartu eta haien seme-alabak Padre Moret BHIan matrikulatzea erraztu dezan, irakaskuntza jaso dezaten haien gurasoek hautatu zuten British programa elebidunaren barnean. Nolanahi ere, Doña Mayor de Navarra ikastetxe publikoa zein ikastetxe zehatzi atxikitzen zaion kontuan hartu gabe, gomendatzen dut ikasle horiei aukera eman dakien gurasoek hautatu zuten ingeles-gaztelania irakaskuntza elebiduna ikastetxe publiko batean jasotzen segitzeko.”

Idazkian Nafarroako Arartekoak adierazi du oro har aitortzen dela ikaspostu-esleipenari buruzko

plangintza-erabakiek zuzenean eragiten dietela familiek, hautatzeko askatasunaz baliatuta, ikastetxeak eta hizkuntza-ereduak aukeratzeko orduan matrikulazioari buruz hartzen dituzten erabakiei. Era berean, esan du “herritarrek zilegitasunez espero dutela Administrazioak heldu eginen diela, aurreinskripzio-prozesua amaitu ondoren, bere hezkuntza-eskaintzari eta alde zuzenetik ikastetxe bakoitzerako bere plangintzaren arabera esleitutako ikaspostu kopuruari”.

Maiatzaren 18an, jadanik Nafarroako Arartekoaren erabakiaren berri izan ondoren, ukitutako gurasoen ordezkartza batek agerraldia egin zuen Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordean, aipatu den egoera hori azaltze aldera. Haren azalpen gehientsuenak ondo hartu eta babestu egin zituzten Legebiltzarrean dauden parlamentu-talde ezberdinek.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Doña Mayor de Navarra ikastetxe publikoko ikasleak 2016-2017 ikasturterako Padre Moret BHIan matrikulatzea erraztu dezan, ikasle horiek askatasunez hautatu zuten British programa elebidunaren barnean jasotze aldera irakaskuntza.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 18an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aniztasunerako Arretaren Plan Estrategikorako proposamen bat aurkeztu eta hezkuntza komunitatearekin eztabaida dezan, eskola inklusibo baten esparruan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Aniztasunerako Arretaren Plan Estrategikorako proposamen bat aurkeztu eta hezkuntza komunitatearekin eztabaida dezan, eskola inklusibo baten esparruan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Aniztasunerako Arretaren Plan Estrategikorako proposamen bat aurkeztu eta hezkuntza komunitatearekin eztabaida dezan, eskola inklusibo baten esparruan.

Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak eta, bereziki, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek hitz egiten dugunean, haien eskolatzeko zehazteko orduan adierazi egiten dugu beharrezkoa dela kalitateko hezkuntza-arreta bermatzea beraiei, ikastetxeetan dauden giza baliabide, baliabide material eta antolaketa baliabideen arabera, ikasle horiek dagokien etapako hezkuntza-helburuak lortze aldera.

Azken batean, asmoa oreka lortzea da, alde batetik, oinarritzeko inklusio- eta normalizazio-printzipioen eta, beste aldetik, ikaslearen beharrezkin bat datorren hezkuntza-erantzuna emateko funtsezko printzipioaren artean, eskola-ikaskuntzei dagokienez. Testuinguru horren barnean, baliabide didaktikoen garrantziari heldu behar zaio. Baliabide didaktikotzat jotzen diren prestakuntza-prozesua hobetzea eragiten duten esku-hartze eta laguntza guztiak, bai eta prozesu hori errazten duten baliabide pertsonalak, teknikoak eta didaktikoak ere.

Nafarroako hezkuntza-sistemari buruzko txostenek adierazten dute hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak gero eta gehiago direla ikasturte. Hezkuntza-premia bereziak detektatzen lagundu da, baina ez ebaluazioa eta esku-hartzea; ez, behintzat, neurri berean. Estatistika handitu egin da, baina ez dago hain argi erantzuna hobetu ote den.

Ikasle horiekiko esku-hartzea hobetzeko, beharrezkoa izanen da hezkuntza arretako neurriak azpimarratzea, horiek hobetzen dituzten protokoloak ezartzea, araudia sustatu eta hobetzea –zuzendaritzak eta ikuskatzaitzak jarraipena eginez–, eta Derrigorrezko Hezkuntzaren ondoko etapetan sentsibilizazioa lantzea; izan ere, azken hori araututa badago ere, etapa horietan tradizioz ez ohi zaie arreta bera eskaintzen beharizan horiei.

Alde horretatik, azken hamarkadetakoa hezkuntza arloko legeetan kontuan hartu da Aniztasunerako Arretaren printzipioa, eta horri heldu behar da modu integratuan bai ikastetxeetan bai berariazko programen bidez –sakonago ala ez hain sakon, azken urteotan indarrean egon diren araudi ezberdinen arabera–.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Aniztasunerako Arretaren Plan Estrategikorako proposamen bat aurkez eta hezkuntza komunitatearekin eztabaida dezan, eskola inklusibo baten esparruan.

2. Aniztasunerako Arretaren Plan Estrategiko horrek honako hauek bilduko ditu, gutxienez:

a. Hezkuntza inklusiborako eta hezkuntza bereziko berariazko mapa bat, ezarpen-fase bakoitzean zuzkidurak planifikatzeko eta baliabide-beharrari erantzuna emateko.

b. Inbertsio-planerako proposamen bat, funts publikoen bidez mantentzen diren hezkuntza bereziko ikastetxeetarako.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 19an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da erraztu dezan Doña Mayor de Navarra ikastetxe publikotik datozen ikasleen matrikulatzea Padre Moret-Irubide Institutuko British programan.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita erraztu dezan Doña Mayor de Navarra ikastetxe publikotik datozen ikasleen matrikulatzea Padre Moret-Irubide Institutuko British programan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, urgentziaz, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Doña Mayor de Navarra ikastetxe publikoko Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen gurasoen ordezkari batzuk etorri ziren Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordera, lan-bilera egiteko.

Guraso horiek azaldu zuten zein egoeratan zeuden, Bigarren Hezkuntzako ikasketak British programa batean egiten jarraitzeko asmoz Padre Moret-Irubide Bigarren Hezkuntzako Institutuan seme-alabak matrikulatzeko zuten asmoaren ondorioz.

Izan ere, Padre Moret-Irubide BHIak zenbait ikasle onartu ere egin zituen, eta horrela adierazi zen ikastetxearen webgunean bertan; baina gero zerrenda horretatik baztertu zituen, ulergaitza bada ere.

Gurasoek Arartekoarengana jo zuten babes bila, eta horrek arrazoia eman zien. Horren harira Arartekoak gomendio bat egin zuen, eta hori ikusita ere, Hezkuntza Departamentuak adierazi zuen ezin ziola eskaerari baietzik eman.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du erraztu dezan Doña Mayor de Navarra ikastetxe publikotik datozen ikasleen matrikulatzea, Hezkuntza Departamentuari 2015eko abenduaren 18an aurkeztutako eskabidearen bidez baimena eskatu baitzuten Padre Moret-Irubide institutuko British programan matrikulatzeko eta haien hezkuntza elebidunari (ingelesa-gaztelania) jarraipena eman ahal izateko, eta, hala ere, ikastetxe horretako DBHko 1. mailarako ikaspostuen itxaron-zerrendan jarraitzen baitute.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 19an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da lehentasuna eman diezaien Nafarroako Gobernuaren edo udalen titulartasuneko eraikin historiko, artistiko eta monumentaletan beharrezkoak diren inbertsioei.

EH BILDU NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita lehentasuna eman diezaien Nafarroako Gobernuaren edo udalen titulartasuneko eraikin historiko, artistiko eta monumentaletan beharrezkoak diren inbertsioei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentarien zenbait ekimenen ondotik, Nafarroako Parlamentuak zehaztasunez jakin ahal izan du zein izan diren Nafarroako Gobernuak eta Vianako Printzea Erakundeak 2007tik gaur egun arte egindako inbertsioak balio kultural, artistiko eta monumentalak duten eraikinetan. Datuen analisiak erakusten duenez, aipatu diren erakunde publikoek guztira 43.146.557,2 euro bideratu dituzte balio kultural, artistiko eta monumentalak duten eraikinetan mantentze-, birgaitze- eta eraldatze-lanak egiteko. Zenbateko horretatik, 21.255.605,3 euro jabetza publikoko eraikinetara bideratu dira; baina 21.890.951,9 euro, erdia baino gehiago, jabetza pribatuko eraikinetan erabili dira.

Datu horietatik bereziki deigarria da, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldearen iritziz, bai titulartasun publikoko eraikinetako inbertsioaren eta titulartasun pribatuko eraikinetakoaren berdintsutasuna,

bai titulartasun pribatuko eraikinak finantzatzera bideratutako baliabide publiko ia guztiak erabili direla Eliza Katolikoaren jabetzakoak diren eraikinetan, inoiz bete gabe Nafarroako kultur ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legearen 7. artikulua bera ere. Aipatu artikulua bigarren lerroaldean honakoa xedatzen da, hitzez hitz: "Batzarde misto bat eratuko da Foru Komunitateko administrazioaren eta Eliza Katolikoaren ordezkariekin, eta bi erakundeen arteko koordinazio esparrua ezarriko du elkarlanerako jarduketak-planak landu eta garatzeko, Eliza Katolikoarenak izan eta Nafarroako kultur ondarekoak diren ondasunak berreskuratu, kontserbatu, babestu eta ugaritzeko eta haien zabalkunde-lana egiteko." Alegia, UPNren gobernuak Eliza Katolikoaren titulartasuneko ondasunetan lanak finantzatu dituzte (21.012.745,1 euro), hain zuzen ere sortu edo deitu gabe lege ezarritako batzardea, Elizaren jabetzako eraikinetarako inbertsioek interes publikorako elkarrekotasuna izanen dutela bermatuko duena. Inbertsio horiek Eliza Katolikoaren jabetzaren egoera pribilegiatzen lagundu dute, besterik gabe. Izan ere, jabetza hori modu ez-legitimoan eskuratzeaz gain (parlamentu honen posizionamendu politikoei tan adierazitakoaren arabera), salbuetsirik gelditu da jabe orori eraikinak babestu eta zaintzeko dagokion erantzukizunetik.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek, xedea izanik Aldaketaren Gobernuaren jardun-irizpideak definitzea interes kultural eta balio artistiko eta monumentaleko ondasun diren eraikinetako inbertsioei dagokienez, ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du lehentasuna eman diezaien Nafarroako Gobernuaren edo udalen titulartasunekoak diren eraikin historiko, artistiko eta monumentaletan beharrezkoak diren inbertsioei.

2. Eliza Katolikoak era ez-legitimoan immatrikulatu dituen ondasunak berreskuratzeko egin beharko diren jarduketak ezertan ukatu gabe, Nafarroako Gobernuak 14/2005 Foru Legearen 7. artikulua aipatzen duen batzarde mistoa sortu eta haren deialdia eginen du, bermatze aldera Nafarroako erakunde publikoek gaur egun Eliza Katolikoaren jabetzakoak diren eraikinetan egindako inbertsio publiko guztiak beraiekin ekar ditzaten

erabilera- eta ustiapen-eskubideak, Nafarroako herritarren mesedetan.

3. Kontuan hartuz izaera monumental, artistiko eta kulturala duten titulartasun publikoko eraikin askok behar duten inbertsioa, Nafarroako Gobernuak eta Vianako Printzea Erakundeak titulartasun pribatuko eraikinetan edozein inbertsio egin aurretik azterlan tekniko eta ekonomiko zorrotz bat

prestatuko da, inbertsio hori ondare publikoko beste inbertsio batzuen aldean lehenestea justifikatuko duena. Azterlan hori Nafarroako Parlamentuko Kultura Batzordean aurkeztuko da, aipatu inbertsiorako arrazoiak azaltzeko eta parlamentutaldeen jarrera ezagutzeko.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 19an

Eleduna: Adolfo Araiz Flamarique

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak desadostasunerako eta protesta baketsurako eskubidea aldarrikatzen baitu, gizarte demokratiko eta askotarikoa eraikitzeko funtsezko elementua den aldetik.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak desadostasunerako eta protesta baketsurako eskubidea aldarrikatzen du, gizarte demokratiko eta askotarikoa eraikitzeko funtsezko elementua den aldetik.

2. Nafarroako Parlamentuak gehiegizkotzat jotzen du Gobernuaren Ordezkaritzak aginduta

Guardia Zibilak Artiedan gauzatu zuen indarke-riazko jarduketa.

3. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna agertzen du protesta-ekitaldi baketsu horretako parte-hartzaileekiko, eta herri mailan ‘Esako 8ak’ izenarekin ezagutzen direnak absolbituak izatea eskatzen du”

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere kezka agertzen baitu Iruñean lau gaztek jasan dituzten sexu-erasoengatik, eta eraso horiek zeharo arbuiatzen baititu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere kezka agertzen du azken asteotan Iruñean lau gaztek jasan dituzten sexu-erasoengatik, eta eraso horiek zeharo arbuiatzen ditu. Era berean, bere elkartasuna agertzen die pertsona horiei eta horien senideei.

2. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du indarkeria sexista eta edozein motatako sexu-indarkeria desagerrarazteko asmoz lan egi-

teko. Alde horretatik, prebentzioaren, sentsibilizazioaren eta balio- eta berdintasun-hezkuntzaren aldeko bere apustua berresten du, baita indarrean dauden protokoloak aplikatzearen aldeko apustua ere.

3. Nafarroako Parlamentuak herritar guztiak animatzen ditu errespetuan, berdintasunean eta bizikidetzan oinarritzen diren harremanak sustatzera eta edozein eraso sexista edo sexu-indarkeria dakarren edozein jokabide salatzerara”

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen baititu Turkian eskubide zibilek eta askatasun politikoek dituzten murriztapen iraunkorrak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Alderdi politiko eta ordezkari publiko kurduen aurka Turkian gertatzen ari den jarrera anti-demokratikoak eta eskubide zibilen eta askatasun politikoaren murriztapenekoak gaitzespen tinkoena merezi du.

2. Norbere jarduera politikoari dagokionez immunitatea izatea sistema parlamentarioaren funtsezko berme bat da, eta hori kentzea zuzeneko eraso da demokraziaren aurka.

3. Gure elkartasuna adierazi nahi diegu bai immunitatea galtzera arriskatzen diren parlamentarietara bai haien alderdiei, eta, bereziki, HDPri, zeinak herri kurduaren eskubideak ez ezik demokrazia soziala ere defendatzen baitu Turkiarako.

4. Gure ustez, Europar Batasunari dagokio herrialde horrek askatasun demokratikoak errespetatzen dituela bermatzeko behar diren mekanismoak abiarazteko betebeharra, Turkiarekin harreman bereziak dituela gogoratu behar baita”

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Meategien inguruko Mahaia edo Kontseilua eratzeari buruzkoa.*DAVID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea David Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Meategien inguruko Mahaia edo Kontseilua eratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Dabid Anaut Peñak, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko

Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari:

Garapen Ekonomikoko Departamentuak urtarilean herrietako zenbait ordezkarekin egindako bilera batean, Industria Zuzendariak adierazi zuen meategien inguruko mahai edo kontseilu bat sortzeko asmoa zegoela. Antzeko adierazpenak egin izan ditu Garapen Ekonomikoko kontseilariak ere Parlamentuan bertan .

– Eratu al da Nafarroan meategien inguruko mahai edo kontseilurik?

– Hala baldin bada, zein da organo horren osaera, eta zenbatetan elkartu da?

– Horrelako mahairik edo kontseilurik ez bada eratu, ba al dago eratzeko aurreikuspenik, eta zein izanen da prozedura eta organoaren osaera?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

Galdera, Nafarroako eremu ez-euskalduneko A eta G erduei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako eremu ez-euskalduneko A eta G erduei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

A erduko (euskararen irakaskuntza) zenbat lerro ezarri gogo ditu Hezkuntza Departamentuak Nafarroako eremu ez-euskalduneko ikastetxe publikoetan, Haur Hezkuntzako lehen mailan, hain zuzen, 2016-2017 ikasturteari begira? Zehaztu ikastetxea, herria eta kasu bakoitzean aurreikusitako ikasle kopurua.

G erduko (gaztelaniazko irakaskuntza) Haur Hezkuntzako lehen mailako zenbat lerro hartuko dituzte A erduko ikasleak Nafarroako eremu ez-euskalduneko ikastetxe publikoetan? Zehaztu ikastetxea eta ereduaren arabeko ikasle kopurua unitate bakoitzean.

Zer informazio eman zaie seme-alabak Haur Hezkuntzako lehen mailan edukita A erdua aukeratu duten gurasoei, euskararen irakaskuntza gehitzeko murriztuko diren irakasgaiei eta orduei buruz?

Zer informazio eman zaie G erduko Haur Hezkuntzako lehen mailan egonda A erdua aukeratu duten ikasleekin ikasgelak partekatzen dituzten ikasleen gurasoei, ikaskideak euskarazko eskoletara agertu ahal izateko murriztuko diren irakasgaiei eta orduei buruz?

Corellan, 2016ko maiatzaren 18an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuan bideragarritasun ekonomikoko azterlan xehakaturik ez egoteari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuan bideragarritasun ekonomikoko azterlan xehakaturik ez egoteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamenduko 189. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari Departamentuak, 2015eko abenduan, diziplinarteko eta departamentuarterako lantalde bat sustatu zuen, besteak beste "Aroztegia" izeneko udalez gaindiko plan sektorialaren administrazio-egoera aztertzeko.

Lantalde horrek zenbait bilera egin ondoren, txosten-laburpen bat prestatu zen, hainbat gogoeta biltzen dituena. Gogoeta horien berri izan ondoren, honako galdera hau aurkezten da, idatziz erantzun dakion:

Gobernuak ere uste al du sustatzaileek aurkeztutako dokumentazioan ez dela biltzen "jarduketaren gaineko bideragarritasun ekonomikoari buruzko azterlan xehakaturik", txostenean esaten den bezala?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuak toki ogasunean duen eraginari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuak toki ogasunean duen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamenduko

189. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari Departamentuak, 2015eko abenduan, diziplinarteko eta departamentuarterako lantalde bat sustatu zuen, besteak beste "Aroztegia" izeneko udalez gaindiko plan sektorialaren administrazio-egoera aztertzeko.

Talde horrek zenbait bilera egin ondoren, txosten-laburpen bat prestatu zen, hainbat gogoeta biltzen dituena. Gogoeta horien berri izan ondoren, honako galdera hau aurkezten da, idatziz erantzun dakion:

Gobernuak ere uste al du sustatzaileek aurkeztutako balioak, toki ogasunaren gaineko inpaktuen ondoriozkoak, optimistegiak direla, dirusarreraren eta gastuen kalkulurako hipotesien arteko tratamendu koherenterik gabeak, tratamendu berezia, behar bezala justifikatu gabea?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuan saneamendu sarea justifikatu gabe egoteari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuan saneamendu sarea justifikatu gabe egoteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamenduko 189. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuak, 2015eko abenduan, diziplinarteko eta departamentuarterko lantalde bat sustatu zuen, besteak beste "Aroztegia" izeneko udalez gairako plan sektorialaren administrazio-egoera aztertzeko.

Talde horrek zenbait bilera egin ondoren, txosten-laburpen bat prestatu zen, hainbat gogoeta biltzen dituena. Gogoeta horien berri izan ondoren, honako galdera hau aurkeztu da, idatziz erantzun dakion:

Gobernua ados al dago txostenak egiten duen baieztapen batekin, zeinaren arabera saneamendu sarea (ur beltzak eta arazketa) justifikatu gabe dagoen, ez delako justifikatu egun dagoen sarea-aren ahalmena?

Zergatik ez dago proiektuko espedientean horridura- eta saneamendu-azpiegituri buruzko udal txostenik?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuari dagokionez lurzatietan esplorazioak neurri handiagoan mugatu beharri buruzkoa eta proiektu horretako espazio publiko urbanizatuak irisgarriak izateko eta lurzati horien irisgarritasunari eta erabilerari dagokienez bereizkeriarik ez izateko oinarrizko baldintzak betetzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuari dagokionez lurzatietan esplorazioak neurri handiagoan mugatu beharri buruzkoa eta proiektu horretako espazio publiko urbanizatuak irisgarriak izateko eta lurzati horien irisgarritasunari eta erabilerari dagokienez bereiz-

keriarik ez izateko oinarrizko baldintzak betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamenduko 189. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari Departamentuak, 2015eko abenduan, diziplinarteko eta departamentuarterako lantalde bat sustatu zuen, besteak beste "Aroztegia" izeneko udalez gaindiko plan sektorialaren administrazio-egoera aztertzeko.

Talde horrek zenbait bilera egin ondoren, txosten-laburpen bat prestatu zen, hainbat gogoeta biltzen dituena. Gogoeta horien berri izan ondoren, honako galdera hau aurkezten da, idatziz erantzun dakion:

Gobernuak uste al du, txostenak dioenarekin bat, lurzati-tako esplorazioa murriztuagoa izan behar dela, udalez gaindiko plan sektorialak ez

duelako ebaluatu lurzati-tako lur-mugimendua, eta ingurumen-eragina handia izan daitekeelako?

Gobernuak uste al du, txostenak dioenarekin bat, aipatu maldak egoteagatik oso zaila izanen dela, ezinezkoa agian, oinarriko baldintzak betetzea irisgarritasunari eta gune publiko urbanizatuetara sartzeko eta haiek erabiltzeko diskriminaziorik ezari dagokienez, hain zuzen ere otsailaren 1eko VIV/561/2010 Agindua betetzea, hain zuzen ere udalez gaindiko plan sektorialaren testu bateginak espresuki adierazi behar duelarik agindu hori betetzen dela?

Testu bategin horretan zergatik daude aipamen-hutsuneak, adibidez, "20. Sestak" eta "21. Planeko hirigintza-araudi partikularreko bideak" atalei dagokienez?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuan Lurralde Antolamenduko 2. Planaren 58. artikulua betetzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuan Lurralde Antolamenduko 2. Planaren 58. artikulua betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamenduko 189. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari Departamentuak, 2015eko abenduan, diziplinarteko eta departamentuarterako lantalde bat sustatu zuen, besteak beste "Aroztegia" izeneko udalez gaindiko plan sektorialaren administrazio-egoera aztertzeko.

Talde horrek zenbait bilera egin ondoren, txosten-laburpen bat prestatu zen, hainbat gogoeta biltzen dituena. Gogoeta horien berri izan ondoren, honako galdera hau aurkezten da, idatziz erantzun dakion:

Lurralde Antolamenduko 2. Planaren 58. artikulua, "oinez eta bizikletaz ibiltzeko bideen sistema" izenekoak, bigarren atalean ezartzen duenez, hirigintzako planeamenduko tresnetan gisa horretako azpiegiturak aurreikusi beharko dira, oinezkoendako gune berriak sortuz eta ibilbideak eta bizikletaz ibiltzeko bideak gehituz; halaber, beharrezko izanen da horiek aurreikustea hedapen-eremuetan, eta betiere teknikoki posible izanez gero, hiri-lurzoru finkatuetan.

Gobernuak zergatik eman zion behin betiko onspena udalez gaindiko plan sektorialari, baldin eta enpresa sustatzaileak aurkeztutako mugikorta-

sunari buruzko azterlanean ondorioztatzen bazen, oinez eta bizikletaz iristeari dagokionez, antolamenduan aurreikusitako espaloiak oinezkoek eta bizikletariak konpartiturik erabiliko dituztela, aipatu Luralde Antolamenduko 2. Plan horren determinazio lotesle bat urratuz?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuari buruzko txostenaren “1. alternatiba” izeneko aukerari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuari buruzko txostenaren “1. alternatiba” izeneko aukerari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamenduko 189. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuak, 2015eko aben-

duan, diziplinarteko eta departamentuarteko lantalde bat sustatu zuen, besteak beste “Aroztegia” izeneko udalez gaindiko plan sektorialaren administrazio-egoera aztertzeko.

Talde horrek zenbait bilera egin ondoren, txosten-laburpen bat prestatu zen, hainbat gogoeta biltzen dituena. Gogoeta horien berri izan ondoren, honako galdera hau aurkeztu da, idatziz erantzun dakion:

Txostenak 1. ordezko aukera gisa planteatzen du “Udalez gaindiko plan sektorialeko antolamendua mantentzea, baina berme handiagoak eskatuta”; horiek horrela,

Egokitzat jotzen al da aukera hori? Porrot kasuan ingurunearentzat konponketa garestiko eraginak gertatzeko arriskurik aurreikusiz gero, Gobernuak % 6tik gorako bermerik eskatuko al du?

Eraikitze-lanak eta urbanizazio-lanak batera egiten balira, Gobernuak % 20ko beste berme bat eskatzeko asmorik izanen al luke?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuari buruzko txostenaren “2. alternatiba” izeneko aukerari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuari buruzko txostenaren “2. alternatiba” izeneko aukerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamenduko 189. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuak, 2015eko abenduan, diziplinarteko eta departamentuarteko lantalde bat sustatu zuen, besteak beste “Aroztegia” izeneko udalez gaindiko plan sektorialaren administrazio-egoera aztertzeke.

Talde horrek zenbait bilera egin ondoren, txosten-laburpen bat prestatu zen, hainbat gogoeta biltzen dituena. Gogoeta horien berri izan ondoren, honako galdera hau aurkezten da, idatziz erantzun dakion:

Txostenak 2. ordezko aukera gisa planteatzen du “Udalez gaindiko plan sektorialeko antolamendu egituratzailea mantentzea, eta Udalaren esku uztea zehaztapen xehakatuaren garatzea” LAHren 45.5 artikulua ahalbidetzen duen eran. Horrek esan nahi luke Baztango Udalarari garatze-eskumenak itzultzea, Nafarroako Gobernuak erabaki baitzuen udalez gaindiko plan sektorial baten bitartezko tramitazioa, lurralde horren antolamendua zehazteko.

Horiek horrela,

Gobernuak egokitzat jotzen al du aukera hori, Baztango Udalak garatze-eskumenak berreskuratzeara, udalez gaindiko plan sektoriala administrazio-bidean behin betiko onetsita egonda?

Gobernuak uste al du udalez gaindiko plan sektorial honen edukiaren hirigintza-garapenerako eskumenak Baztango Udalarari itzultzeak kontrol handiagoa ahalbidetuko lukeela aipatu toki entitatearen aldetik, ezarritakoari jarraikiz eta berme handiagoekin?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuari buruzko txostenaren “4. alternatiba” izeneko aukerari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuari buruzko txostenaren “4. alternatiba” izeneko aukerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamenduko 189. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuak, 2015eko aben-

duan, diziplinarteko eta departamentuarterko lantalde bat sustatu zuen, besteak beste “Aroztegia” izeneko udalez gaindiko plan sektorialaren administrazio-egoera aztertzeko.

Talde horrek zenbait bilera egin ondoren, txosten-laburpen bat prestatu zen, hainbat gogoeta biltzen dituena. Gogoeta horien berri izan ondoren, honako galdera hau aurkeztu da, idatziz erantzun dakion:

Txostenak 4. ordeko aukera gisa planteatzen du “Udalez gaindiko plan sektorialeko antolamendua aldatzea, etxebizitza- edo ekonomia-erabilera batzuk murriztuz edo kenduz”; horren ondorioz egon litezkeen kalte-ordainen eragina 1,5 milioi euro ingurukoa izanen litzatekeela kalkulatu du.

Horiek horrela,

Gobernuak egokitzen jotzen al du etxebizitza-erabilerak murriztea edo kentzea, garapen ekonomikoa –eta zehazki turismoarena– izan denez proiektu hori udalez gaindikotzat kalifikatzeko argudio nagusia?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Lekarozko Aroztegia udalez gaindiko plan sektoriala iraungitzea erabakitzeke aukerari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Lekarozko Aroztegia udalez gaindiko plan sektoriala iraungitzea erabakitzeke aukerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamenduko 189. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuak, 2015eko abenduan, diziplinarteko eta departamentuarterko lantalde bat sustatu zuen, besteak beste "Aroztegia" izeneko udalez gaindiko plan sektorialaren administrazio-egoera aztertzeke.

Talde horrek zenbait bilera egin ondoren, txosten-laburpen bat prestatu zen, hainbat gogoeta biltzen dituena. Gogoeta horien berri izan ondoren, honako galdera hau aurkezten da, idatziz erantzun dakion:

Txostenak 4. ordezko aukera gisa planteatzen du "Udalez gaindiko plan sektorialaren iraungitzea erabakitzea, eta bertan dagoen antolamendua

udal planeamenduaren mailara igarotzea. Adierazten denez, Nafarroako Gobernuak legezko ahalmena izanen luke Aroztegia eremua UPS gisa mantentzeko bere erabakia berrikusteko eta, kasua bada, eskumena udal plangintzari eskualdatzeko, honakoa gertatzen bada:

– administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren bidean aurkeztutako datuak eta argudioak ikusirik, irudituko balitzaio aurkako iritzi-adierazpena izateko arrisku funtsatua dagoela.

– irudituko balitzaio inguruabarrak aldatu direla, halako moldez non justifikatua legokeen udalak kontrol egokia egitea antolamendu horren gainean, antolamenduaren udalez gaindiko izaeraren beharra jadanik desagertuta.

Halaber, adierazten da ezen, logika osoarekin, legez UPSren bidezko jarduketa bat justifikatzeko bildu behar diren arrazoi berek, a sensu contrario, antolamendu-tresna horren iraungitzea justifikatzen ahal dutela. Eta hori gerta daiteke uste denean ez direla biltzen gaur egungo inguruabarretan (kontuan hartu gabe

udalez gaindiko plan sektoriala onetsi zenean biltzen ziren ala ez; auzi hori, egun, Nafarroako Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko Auzien Sala aztertzen ari da, errekurtso bidean).

Horiek horrela,

Gobernuak uste al du UPSren beharrik jadanik ez egoteko inguruabarrak biltzen direla?

Baztango Udalak eskatuko balu, LAHren 46.f artikulua babesean, UPSren edukia udal esparrura itzultzea, Nafarroako Gobernu prest egonen al litzateke UPSa indargabetzeko?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuari buruzko txostenaren konklusioetako 4. aukerari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Lekarozko Aroztegia proiektuari buruzko txostenaren konklusioetako 4. aukerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamenduko 189. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari Departamentuak, 2015eko abenduan, diziplinarteko eta departamentuarterako lantalde bat sustatu zuen, besteak beste "Aroztegia" izeneko udalez gaindiko plan sektorialaren administrazio-egoera aztertzeke.

Talde horrek zenbait bilera egin ondoren, txosten-laburpen bat prestatu zen, hainbat gogoeta biltzen dituena. Gogoeta horien berri izan ondoren, honako galdera hau aurkeztu da, idatziz erantzun dakion:

Txostenak ondorioztatzen duenez, interesgarria litzateke harremanetan jartzea udalarekin, 4. aukera aplikatzearen aukera elkarrekin baloratzeke. Horiek horrela,

Gobernua bat al dator ondorioztatzen horrekin? Prest egonen al litzateke udalarekin batera aztertzeke ea zer bide egon daitezkeen aukera hori sustatzeko?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, ANADI elkarteak eskatu duen diru-laguntza ukatzeari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, ANADI elkarteak eskatu duen diru-laguntza ukatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Joan den maiatzaren 17an gurekin egon zen ANADI, diabetesa duten pertsonak biltzen dituen elkartea. Kideek aipatu zuten, besteak beste, Eskubide Sozialetako Departamentuak 2015eko diru-laguntza bat ukatu zuela eta uko horrek berekin ekarri duela 2016an diru-laguntza hori eskeratu ezin izatea.

ANADIren ustez, ukoa baremazio-akats batean datza; horregatik, errekurtsio bat eta txosten juridiko bat aurkeztu dituzte, baina biak gaitzetsi dizkiete. Elkarteak dioenez, hasierako akats batek prozesu osoa baldintzatu du, eta baremazioa berrikusteko prozedura ez da egokia.

Adierazpen horien aurrean, jakin nahi dugu zein izan den diru-laguntza hori ukatzeari eta haren aurkako errekurtsioari buruzko prozesua, Departamentuaren ustez akats bat gertatu ote den, eta, horrela iritiz gero, zein urrats egin behar den akatsa zuzentzeko.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 19an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Nafarroako Gobernuak eta haren mendeko sozietateek Tafallako eskualdean alokatuta dituzten higieinei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak eta haren mendeko sozietateek Tafallako eskualdean alokatuta dituzten higieinei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

- Parlamentari honek jakin nahi du erabilera ezberdinetarako zenbat higiezin duten errentan Nafarroako Gobernuak eta haren menpeko sozietateek Tafallako eskualdean, zehaztuta higiezin kokapena, erabilera eta Nafarroako Gobernuak eta haren menpeko sozietateek hilean haietako bakoitzagatik ordaintzen duten zenbatekoa.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 19an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko mandatari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko, B2 pareko euskara mailarekin.

Ikusirik Nafarroako Kontuen Ganberaren idazkari nagusiaren eta administratzailearen txostenak, mandatari izateko lanpostu huts bat betetzeari buruzkoak, lanpostu hori aurreikusirik baitago Nafarroako Kontuen Ganberaren 2016rako plantilla organikoan, eta Zerbitzu Juridikoaren eta Kontu-hartzaitza Zerbitzuaren aldeko txostenak baititu, eta horren berri erakundeko langileen batzordeari behar bezala eman ondoren, lehendakaritza honek, bere ahalmenak eta bere eskumenak erabiliz,

EBATZI DU:

Lehenbizikoa. Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko mandatari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onestea. Deialdia ondoko oinarrien arabera izanen da.

Bigarrena. Deialdi hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web orrian argitara dadila xedatzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Asunción Olaechea Estanga

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko mandatari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko, B2 pareko euskara mailarekin

Hona hemen deialdiaren oinarriak:

1. oinarria. Arau orokorrak.

1.1. Deialdiaren xedea da Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko mandatari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzea,

bere eginkizunak beteko baititu erakundeak Iruñeko Ansoleaga kaleko 10ean duen egoitzan.

1.2. Lekualdatze lehiaketa honako hauei jarraikiz egingen da: 1991ko martxoaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua eta lekualdatze lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuko lanpostuak betetzeko Erregelamendua, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2007ko otsailaren 26an onetsia (21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala, 2007ko martxoaren 7koa). Horien osagarri aplikatuko dira Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua eta lanpostuak Betetzeko Erregelamendua onesten duen azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretua.

1.3. Deialdiaren bidez izendatutako pertsonak Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionarioentzat ezarritako eginkizunak beteko ditu eta horien eskubide eta betebeharrak izanen ditu, eta, bereziki, mandatari lanpostuari dagozkionak.

Haren eginkizunak Nafarroako Kontuen Ganberaren Antolaketaerako Erregelamenduaren (2007ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala, martxoaren 2koa) 14. artikuluan ezarritakoak dira. Hona hemen eginkizun horietako batzuk: telefono-banaguneaz eta jendearentzako informazioaz arduratzea, dokumentuen lekualdatzea, erreprografia eta banaketa, prentsa egunkariak eta laburpenak prestatzea, Kontuen Ganberako instalazioen zainketa eta mantentze-lana, dokumentuak artxibatze eta gordetzearen alorrean eginkizun osagarriak betetzea eta laguntza ematea, eta, oro har, Lehendakaritzak, edo Idazkaritza Nagusiak agintzen dizkion guztiak, haren eskumenean barnekoak.

1.4. Lanpostua D mailakoa da eta horri dagozkion ordainsariak izanen ditu, eta Nafarroako Kontuen Ganberaren indarreko plantilla organikoan

2016rako zehazten diren osagarriak gehituko zaizkie.

1.5. Deialdiko lanpostu kopuruari geroago beste zenbait gehitzen ahalko zaizkio, alegia, epaimahaiak lehiakideen zerrenda (lortutako puntuazioaren arabera) deialdia egin duen organoari igortzen dion egunean hutsik daudenak.

2. oinarria. Izangaiek bete behar dituzten baldintzak.

2.1. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, lanpostu huts hori lekualdatze lehiaketaren bidez beteko da. Lehiaketa horretan parte hartu ahal izanen dute jardunean, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian dauden Nafarroako Parlamentuko eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio funtzionarioek, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzean honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) D mailako funtzionarioa izatea.

b) Eskola Graduatuaren titulua, Lanbide Heziketako 1. mailako titulua edo baliokideren bat izatea. Beharkizun horri dagokionez, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileria Estatutuaren 15. artikuluan aipatutako barne igoraren bidez behar den mailara iritsi izana frogatuta bete daiteke.

c) B2ren pareko euskara maila izatearen frogaria izatea, hizkuntza eskola ofizial batek luzatua edo ofizialki onartutako erakunde batek luzatutako agiri baliokide bat, edo aski den hizkuntz maila frogatzeko proba bat gainditzea. Proba hori izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratu baino lehen eginen da.

d) Mandatari, etxezain edo atezain lanpostu baterako izendatu izana.

Lanpostu erreserbarik gabe borondatezko eszedentzian edo nahitaezko eszedentzian dauden funtzionarioek zilegi izanen dute lehiaketan parte hartzea, baldin eta deialdiak eskatzen dituen betebeharrak betetzen badituzte; horrela, berriz sartuko dira jarduneko zerbitzuan eta lanpostu bat behin betiko esleituko zaie.

2.2. Aurreko baldintzak deialdiaren 3. oinarrian ezarritako epean eta eran frogatu beharko dira. Baldintza horiek eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunerako bete beharko direla ulertuko da. Era berean, izangaiek 2. oinarri honen 1. atalean aipatzen diren baldintza guztiak hautapen prozedurak iraun bitartean bete beharko dituzte. Hautapen prozedura izendapenarekin bukatuko dela ulertuko da.

3. oinarria. Eskabideak eta horiek aurkezteko epea.

3.1. Lekualdatze lehiaketan parte hartu nahi dutenek behar den eskaera aurkeztu beharko dute, eskabide baten bidez, eredu ofizialarekin bat (deialdiaren II. eranskina). Bertan jarriko dituzte izen-deiturak, adina, nortasun agiriaren zenbakia, helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa.

Eskabideak interesdunen eskura egonen dira Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorrean, bai eta erakundearen web orrian ere (www.camaradecomptos.es), langileak hartzeko deialdien atalean.

3.2. Honako hauek erantsi behar zaizkio eskabideari:

– Deialdiaren 2. oinarrian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela frogatzen duten ziurtagiriak.

– Alegatutako merezimenduen zerrenda ordenatua, I. eranskinean aipatzen den baremoari jarraikiz sailkatuak, eta berauen frogagiriak, behar bezala kautotuak.

3.3. Deialdian parte hartzeko eskabideak Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta erakunde horren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira (Ansoleaga kalea, 10), egun eta ordu baliodunetan (goizeko 8:30etik 14:30era bitarte, astelehenetik ostiralera), hama-bost egun naturaleko epean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 20ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aipatzen diren bideak erabiliz. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

3.4. Desgaitasun aitortua duten lehiatzaileek, ariketak egin ahal izateko denbora edo baliabideetan egokitzapenik behar badute, zilegi izanen dute eskaeran adieraztea, eta hartarako, aparteko orri batean adierazi beharko dute nolako desgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen duten. Horrekin batera, legeen arabera desgaitasun bat dutela frogatzen duen agiria ere aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

4. oinarria. Izangaiei onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Kontuen Ganberako iragarki ohoan eta www.camaracomptos.es web orrian argitaratuko da.

4.2. Interesdunek egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezten ahalko dituzte behin-behineko zerrendaren aurka eta, akatsik izan bada, haiek zuzendu, zerrenda hori Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita bost egun naturaleko epearen barruan.

4.3. Izangai bazterturik ez bada, zuzenean onetsiko da onartuen behin betiko zerrenda eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko da.

4.4. Ezarritako epean eskaerarik aurkezten ez bada, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak lehiaketa bete gabe gelditu dela deklaratzeko ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.5. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Halaber, hura argitara emanen da, Ganberaren iragarki oholean eta www.camaradecomptos.es webgunean. Izangai bakarra ere onartzen ez bada, lehiaketa eman gabe utziko da.

5. oinarria. Epaimahaiaren osaera, eraketa eta jarduketa.

5.1.

Hona hemen merezimendu lehiaketaren epaimahaiko kideak:

Burua: Joxe Julen Fernández Goñi jauna, Nafarroako Kontuen Ganberako administratzailea.

Ordezkoa: María Francisca Pérez de Albéniz Andueza andrea, Nafarroako Kontuen Ganberako administraria.

Kideak:

Julia Elizalde Elizalde andrea, Nafarroako Kontuen Ganberako administraria, langileen batzordearen ordezkari.

Ordezkoa: Teresa Elizalde Del Rincón andrea, Nafarroako Kontuen Ganberako administraria, langileen batzordearen ordezkari.

– José Luis Ezquerro Royo jauna, Nafarroako Kontuen Ganberako legelaria, epaimahaiko idazkari lanetan arituko dena.

Ordezkoa: Gemma Angélica Sánchez Lerma andrea, Nafarroako Kontuen Ganberako legelaria.

5.2. Epaimahai kalifikatzailea izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitara

eman ondoko bost eguneko epearen barruan eratu beharko da.

Epaimahaiaren eraketak eta jarduerak balio izateko, mahaiburuak eta idazkariak edo haien ordezkoez bertan egon beharko dute.

Epaimahaiaren ebazpenak gehiengoz emanen dira eta epaimahaiburuak kalitatezko botoa erabiltzen ahalko du.

5.3. Deialdiaren oinarriak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoak ere, epaimahaiak ebatziko ditu.

5.4. Epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko, eta organo dei egileari horren berri emanen diote, baldin eta Herri Administrazioen Araubide Juridikari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean parte ez hartzeko aipatzen diren egoeretakoren batean badaude. Izangaiek, halaber, zilegi dute mahaikideak errefusatzea, egoera horietako bat gertatzen denean.

6. oinarria. Merezimenduen kalifikazioa.

6.1. Alegatu eta frogatutako merezimenduak deialdi honen I. eranskinean ageri den baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaiak, eta gehienez ere 45 puntu izanen dira.

6.2. Merezimendu guztiak agiri bidez alegatu eta frogatuko ditu izangai bakoitzak, lekualdatze lehiaketa honetan parte hartzeko eskaera aurkeztean.

Epaimahaiak azalpenak eta datu osagarriak eskatzen ahalko ditu, lehiatzaileek alegatutako merezimenduen gainean.

6.3. Epaimahaiak ez du inolaz ere kontuan hartuko alegatu ez den eta agiri bidez frogatu ez den merezimendurik, eta ez du adierazitako puntuazioa baino altuagorik emanen merezimenduen atal bakoitzean.

6.4. Merezimenduen kalifikazioa bukatu ondoren, epaimahaiak argitara emanen du lehiatzaile bakoitzak lortutako puntuazioa Nafarroako Kontuen Ganberako web orrian, eta bost eguneko epea ezarriko du, merezimenduen balorazioaren gainean eskubidekotzat jotzen duten guztia alegatzen.

6.5. Erreklamazioak aurkezteko epea igarota eta epaimahaiak haiek ebatzita, Ganberako iragarki oholean eta web orrian argitaratuko da berriz ere, izangaiek merezimenduen kalifikazio fasean lortutako behin betiko puntuazioekin. Iragarki

horretan, proba praktikoa egiteko tokia, eguna eta ordua emanen dira aditzera.

7. oinarria. Proba praktikoa, lanpostuaren edukiari eta eginkizunei buruzkoa eta Nafarroako Kontuen Ganberaren gaineko ezagutzari buruzkoa.

7.1. 2016ko irailaren 15ean hasiko da proba praktikoa: bi ariketa egin beharko dira idatziz, bakoitza gehienez ere bi orduan; gehieneko puntuazioa 20 puntu izanen da.

Horietako lehenbizikoan 10 puntu emanen dira gehienez, eta Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko ezagutza baloratuko da; 10 galderari erantzunen zaie, eta bakoitzak puntu bateko balioa izanen du. Honako honi buruzkoak izanen dira: Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa, Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legea eta haren antolaketari buruzko Erregelamendua.

Ariketetako bigarrenean 10 puntu emanen dira gehienez; hainbat galdera izanen dira lanpostuaren edukiari eta eginkizunei buruz. Deialdi honen 1. oinarriko 3. atalean deskribatu dira. Zehazki, honako hauei buruzkoak izanen dira galderak: nola eman jendearentzako arreta, aurrez aurrekoa eta telefono bidezkoa, instalazioen zainketa eta mantentze-lana, agiriak artxibatzea, gordetzea, koadernatzea, erreproduzitzea eta eskaneatzea, eta prentsa egunkariak eta laburpenak prestatzea. Horretaz gain, oinarriko informatikako gaiei buruzkoak izan daitezke galderak, hots, eginkizunak egoki betetzeko beharrezkoa den ezagutza informatikoei buruzkoak: erabiltzailearen ezagutza mailarekin erabiltzea ordenagailua, windows, helbide elektronikoa eta word.

Proba hau baztertzaila izanen da, eta, gaintzeko, beharrezkoa izanen da, bi ariketak kontuan harturik, gutxienez ere 10 puntu lortzea.

7.2. Plika itxien sistema erabiliko da ariketa hauek zuzentzeko. Horretarako, izangaiek, ariketa bakoitza bukatzean, orriak gutun-azal batean sartuko dituzte, izenik jarri gabe. Ondoren, izangaiek izen-deiturak gutun-azal txiki batean jarriko dituzte, eta gutun-azal hori bestearekin batera aurkeztuko da. Bi gutun-azalak itxita aurkeztu beharko dituzte. Probak bukatzean, bi gutun-azaletan epaimahaiak zenbaki bera jarriko du. Ariketak zuzendu ondoren eta kasuan kasuko plika zenbakiari puntuak eman ondoren, gutun-azal txikia jendaurrean irekiko da, ariketa bakoitzaren egilea zehazteko.

Gutun-azalak jendaurrean irekitzeko eguna proba egiten ari den bitartean jakinaraziko zaie izangaiei.

Proba honetan lortutako puntuazioa erakundearen iragarki oholean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web orrian argitaratuko da.

7.3. Proba egiteko orduan, minusbalioren bat izanik halaxe eskatzen duten pertsonak denbora eta baliabide aldetik zilegi diren egokitzapenak izanen dituzte, eskabidean azaltzen dutenaren arabera.

8. oinarria. Izangaiei zerrenda ordenatua eta lanpostuaren esleipena.

8.1. Epaimahaiak lehiatzaile guztien puntuazioa prestatu eta izangaiei zerrenda igorriko dio, lortutako puntuazioaren arabera, Kontuen Ganberako lehendakariari eta hark deialdiaren hasieran zen lanpostu kopurua handitzeko ebazpena eman lezake, hori egitea egokia balitz. Halaber, lehendakariak zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko du.

8.2. Puntuazioan berdinketa gertatuz gero, administrazio publikoei zerbitzuak ematen aintzinasun handiena dutenen aldeko erabakia hartuko da. Hori eginagatik ere, berdinketak hautsi gabe jarraitzen badu, lehiakide zaharrenaren alde egingen da.

8.3. Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak puntuaziorik altuena lortzen duen izangaia esleituko dio lanpostua, eta izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko du.

9. oinarria. Lanpostuaren jabetza hartzea.

9.1. Izendatzen den izangaia izendapen erabakia jakinarazi ondoko hamar egun naturaleko epean hartu beharko du lanpostuaren jabetza.

9.2. Aipatutako epean eta aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu, jabetza hartzen ez duen lehiakideak lehiaketaren jardunetatik sortutako eskubideei uko egiten diela ulertuko da, eta hala izanik, aurreko oinarrian adierazitako zerrendan hurrengo den izangaiaekin beteko da lanpostua.

10. oinarria. Aurkeztutako agiriak.

10.1. Aurkeztutako agiriak berreskura ditzakete izangaiek, halaxe eskatu ondotik, betiere erreklamazio edo errekurtsorik jartzen ez bada. Agiriak berreskuratzeko eskaera hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko da. Epe hori izendapenaren ebazpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabetera hasiko da.

10.2. Aurreko atalean ezarritako epea bukatzen bada agiriak hartzeko eskaerarik egin gabe, izangaia agiriak berreskuratzeari uko egin diola uler-

tuko da, eta, beraz, horretarako eskubidea galduko du eta agiriak suntsitu egingen dira.

10.3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkezten baldin bada, aurkeztutako agiriak gorde egingen dira, ikuskatu eta aztertzeko. Agiriak berreskuratu ahalko dira erreklamazioaren edo errekurtsoren tramitazioak horretarako aukera ematen duenean.

11. oinarria. Errekurtsioak.

Deialdiaren, bere oinarrien, izendatzeko erabakiaren eta Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak deialdia dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka errekurtsio hauetako bat aurkez daiteke:

a) Berraztertze errekurtsioa, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Deialdi hau aurrera eramateko epaimahaiak hartzen dituen gainerako egintzen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkezten ahalko da, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari zuzendua, egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

I. ERANSKINA

Merezimenduak baloratzeko baremoa

a) Administrazio publikoetan egindako zerbitzuak. Gehienez ere 25 puntu.

Administrazio publikoetan emandako zerbitzuen balorazioa egiteko, puntu bat emanen da deialdia argitaratzen den egunean aitortutako antzintasun urte bakoitzeko.

Oharrak:

1. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa emanen zaie izangaiei.

2. Honako a) atal honi dagokion puntuazioa gehienez ere 25 puntukoa izanen da.

3. Lanaldi partzialean egindako zerbitzuen kasuan, behar den zatia kenduko da.

4. Deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuak ez dira baloratuko.

5. Funtzionarioa zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egon bada, edo unitate

organiko bateko buru edo zuzendari lanetan aritu bada, aldi horietako zerbitzuak kontatzeko, egoera horietan sartzean zuen lanpostuan egin izan balitu bezala kontatuko dira.

b) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa. Gehienez ere 15 puntu.

1) Erakunde edo zentro publikoek eta unibertsitateek antolatutako prestakuntza jardueretan parte hartzea: 0,10 puntu, kreditu akademiko edo horren baliokide bakoitzeko (10 ikastordu), eta gehienez ere 7 puntu.

Oharrak:

1. Baloratu beharreko ikastaroetan, ikastorduen zatikiak proportzionalki banatuko dira.

2. Ikastorduen kopurua agertzen ez duten ziurtagiriei kreditu bateko balorazioa emanen zaie.

3. Ikasturte bateko iraupena agertzen duten ziurtagiriei 12 kredituko balorazioa emanen zaie.

4. Erakunde antolatzaileari buruzko betebeharrak betetzen ez badituzte ere, Administrazioak agindurik edo oniritzirik eginak diren prestakuntza ekintzetan parte hartzea puntuazio berarekin baloratuko da. Horien artean, espresuki, sindikatuek administrazio publikoetako etengabeko prestakuntzarako itunen barnean antolatuak sartuko dira.

5. Titulu akademiko bat eskuratzeko ikasketak, hala unibertsitatekoak nola unibertsitatez kanpoak, ez dira atal honetan baloratuko.

2) Biltzar edo jardunaldietan txostenak edo komunikazioak aurkeztea, beka jasotako edo saritutako zientzia edo ikerketa lanak egitea, aldizkari espezializatueta lanak argitaratzea, baita itzulpenak argitaratzea ere: 4 puntu, gehienez ere, epaimahaiak baloratu beharrekoak, kontuan hartuz ea lana edo jarduera bakarka edo taldean eginga den eta biltzarrak edo argitalpenak herri, eskualde, estatu edo nazioarteko maila duen.

3) Sektore publikoaren esparruan prestakuntza jardueretan irakasle gisa parte hartzea eta/edo haiek antolatzea: 4 puntu gehienez ere; epaimahaiak baloratu beharrekoak, haien iraupenaren arabera.

Oharrak b) atal osorako:

1. Deialdiko lanpostuarekin zerikusia izanez gero soilik baloratuko dira atal honetan aipatutako merezimenduak.

2. Baremoaren b) atal honetako puntuazioa 15 puntukoa izanen da gehienez.

c) Beste merezimendu batzuk, epaimahaiak baloratu beharrekoak. Gehienez ere 5 puntu.

1. Deialdian eskatutakoez bestelako goi mailako titulazioak, gehienez ere puntu bat.

2. Erdi mailako titulazioak, deialdian eskatu ez direnak: gehienez ere 0,50 puntu.

3. Doktore maila, deialdian eskatutako titulazioari buruz: gehienez ere puntu bat.

4. Europako Erkidegoko hizkuntzak jakitea: Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bate-ratuaren A1 maila izanez gero, 0,20 puntu jasoko dira, A2 maila izanez gero 0,40 puntu, B1 izanez gero 0,60 puntu, B2 izanez gero 0,80 puntu, eta C1 edo baliokidea izanez gero puntu 1.

Ondorio horietarako, kontuan hartuko dira Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak irailaren 13an emandako 210/2010 Ebazpenean hainbat tituluren eta egiaztagiriren artean ezarritako baliozkotzeak. 2010eko 117. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen ebazpen hori, irailaren 27an.

Oharrak c) atalerako:

1. Hizkuntzen ezagutza hizkuntza eskola ofizial baten ziurtagiriaren bidez frogatu beharko da, edo erakunde publiko kreditatu batek emandako ziurtagiriaren bidez. Hartan lortutako titulazioa edo maila adieraziko da.

2. Titulu ofizialik ahalbidetu ez arren hizkuntza ikasmaila osoak edo unibertsitate ikasketak gainditu badira, epaimahaiak horiei puntuazioa ematea erabaki dezake, dagokion tituluren proportzioan.

II. ERANSKINA

Eskabide eredua

Izen-deiturak:,
adina:, NAN zenbakia:,
helbidea (herria, kalea, zenbakia, solairua eta
posta kodea):,
telefono zenbakia:, e-maila:
..... adeitasunez,

AZALTZEN DUT:

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak 2016ko maiatzaren 9an emandako ebazpenaren berri izan dut; horren bidez mandatari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetze-ko dei egiten da, eta hartan parte hartu nahi dut.

Deialdiaren 2. oinarrian eskatzen diren betebe-har guztiak betetzen ditut, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean.

Eskatzen dut behar den proba egitea, hizkuntza maila nahikoa badudala frogatzeko (soilik baldin ezin bada euskara ezagutza frogatu eskatutako titulazioaren bidez)

Desgaitasuna dela eta, egokitzapena eskatu nahi dut (minusbalioaren nondik-norakoak eta behar diren egokitzapenak aparteko orrian azalduko dira, eta legez desgaitasuna izatearen frogagiriaren fotokopia erantsiko da).

Horrenbestez,

ESKATZEN DUT:

Eskabide honetan aipatzen den deialdian onartua izatea. Deialdian eskatutako agiriak eta alegatzen ditudan merezimenduen frogagiriak gaineratu ditut.

Iruñean, 2016ko aren (e)an

Nafarroako Parlamentuak izendatzekoak diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko hiru kideak hautatzea.

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Parlamentuak izendatzekoak diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko hiru kideak hautatzeko hautagaitzak aurkezteko

epea luzatzea **2016ko ekainaren 13ko 12:00ak arte.**

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza